

LABURREAN

FUTBOLA

Josu Sarriegi
Alavesekin 1. mailan

Otsailaren 17an Josu Sarriegi herritarrak 1. mailan debuta-tu zuen Alavesekin, Iruñeko Sadar futbol zelaian. Lazkaon hasi zen futboleko jokatzeko eta 19 urterekin Beasain talde-dera joan zen. Han urtebete eman ondoren, Alavesek fitxatu zuen eta bi denboraldi eman ditu Alavesen bigarren taldean. Karmonaren lesioa zela medio, iaz 1. mailan jokatzeko aukera izan zuen.

TXIRRINDULARITZA

Joseba Beloki
Tourreko podiumean

Joseba Beloki aurten ere hiru-garren sailkatu da munduko lasterketa garrantzitsuenean.

Euskal Bizikleta bigarren egin zuen eta Kataluniako Volta irabazi zuen. Tourreko arrakastaren ostean Espainiako Itzulia zen bere helburua, lidergoa lortu zuen, baina gaitxo jarri zen eta 14. etapan lidergoa galdu eta hurrengo egunean itzulia utzi zuen.

IKERKETA

Euskararen egoerari
buruzko ikerketa

Lazkaoko udalak Siadeco ikerketa elkartearekin batera ikerketa bat burutu zuen Lazkaon euskarak bizi duen egoera jakiteaz gain, euskararen normalizaziorako egitasmoak bultzatzeko erabiltzeko. Ikerketak emaitzak: herritarren hiru laurdenek dakite euskaraz (gazteen %90ak) eta hirugarren sektoreko langile-

en artean ere hiru laurdenek dute euskaraz hitz egiteko gaitasuna. Dena den, kaleko seinaleen %30 gaztelania hutsez daude. Herriko zerbitzuetan euskararen erabilera sustatzeko, euskararen aldeko konpromisoa hartzea eskatu du Siadecok, eta %91k sinatu dute konpromisoa.

ARGITALPENA

Lazkaoko historia

Irailaren 27an Lazkaon Bizi herriko historia liburua aurkeztu zen Kultur Etxean. 400 orriko liburu mardula Deustuko Unibertsitateko historialari taldeak bideratu du eta euskarazko eta gaztelarazko edizioak prestatu dituzte. Euskarazko edizioa 10 liburu-kitan salduko da eta irailaren 29tik hasita, igandero salgai dira faszikulak.

LAZKAO

Herriko gazteak
elkartzea helburu

Pilota eskola eta futbol taldea sortu dira herrian

Olaberria herri sakabanatua den eta herriko haurrak inguruko herrietako ikastetxeetara joaten direnez, askok ez dute elkar ezagutzeko aukera handirik. Arazo honi aurre egiteko azkenaldian ekimen ezberdinak sortu dira herrian: Pilota Eskola sortu zen lehenengo eta aurten futbol taldea sortu da.

Duela hiru urte Garikoitz Arrieta sanjoanetako pilota txapelketa antolatzen hasi zen eta txapelketa horri jarraipena ematea erabaki zen. Horretarako entrenamendu eguna zehaztu zen eta Pilota Eskola sortu zen. Ekimen honen bitartez auzo ezberdinetako haurrak elkartzea lortu da eta egun 16 bat aritzen dira, palaz eta eskuz. Aurten larruzko pilotarekin entrenatzen hasi dira. Beharrezko materiala (kaskoak, betaurrekoak, pilotak...) Udalak jarri du.

Pilota Eskolaren arrakasta ikusirik, aurten futbol taldea sortu da. Honek helburu berbera du, herriko haurren artean gi-



EGUNKARIA

... 15 haurrek osatzen dute Olaberriko futbol taldea.

roa sortzea da. 15 bat haur ari dira futboleko herriko taldean. Entrenatzaileak guraso taldea dira eta asteen behin Beasaingo talde baten aurka jokatzeko dute, batean Beasainen eta bestean Olaberrian. Herriko jaietan Zaldibiako taldearen aurka jokatu zuten. Udalak eskolen ondoko

zelaitxoak berritu die eta Aceraliak elastikoak egin dizkie.

Horrez gain, gurasoek haurrekin afari eta festak egiten dituzte elkarrekin egon daitezela. Pilota eta futbola haurrek elkar ezagutzeko eta haien arteko batasuna lortzeko bitarteko bikaizak izaten ari dira, beraz.

Etxe - Zuri
Sagardotegia

- Sagardo denboralditik kanpo ere irekita.
- Sagardoa urte guztian txotxetik
- Bataio, Jaunartze, lagunarteko otordu, despedida etab.

ETXE-ZURI Baserria

Tel.: 943 88 20 49

OLABERRIA



MARMOLA, GRANITOA
ETA HARRI LANAK
SUKALDE ETA BAINUGELAKO
GAINALDEAK
FATXADA ETA ZORUEN
ESTALDURAK
HILARRIAK

Zubierreka Pol., 52 • LAZKAO • Tel.: 943 882 465 • Tel./ Faxa: 943 887 249

Bittor JATETXEA

- Ezkontzak ○ Jaunartzeak ○
- Eguneroko menuak ○

© 943 18 00 33/ 18 00 84

ATAUN

(S. Martin)




Tel.: 943 18 00 37

San Martin auzoa
ATAUN

LOINATZ O.E.
EDARITEGIA ETA JATETXEA

JAUREGI anaiak

Kale Nagusia, 23
Tel.: 943 88 20 0720200 BEASAIN
(Gipuzkoa)

GIRO ATSEGIN ETA JATORRA
Mota guztietako pintxoak

BASAKANA

Iturrioz, 11 - © 943 88 20 23 - BEASAIN



Urtarrilaren 1etik
Martxoaren 21era arte
Madril - Habana - Madril
83.000 pezeta
(gehienez 45 egun)

Elosegi, 17-behea 3

Tel.: 943889291 - Faxe: 943883971

E-mail: algoz@wanadoo.es

20210 LAZKAO (Gipuzkoa)



**SAN MIGEL
EHORZKETAK**

Herralde eta estatu mailako lekualdatzeak
Koronak, eskelak, agiriak
Zerraldoen erakusketa eta salmenta
Zerbitzu osoak ospitaleetan, etab...

Hirigoin, 42 behea • LAZKAO

Tel.: 943 80 55 69 • Mug.: 658 98 49 45



**GAINTZAKO
UDALA**

Euskaldunon Egunkaria
hamaikagarrenean jada
euskarazko albistegia

ZORIONAK !!